

Kooperatibismoaren Masterrean, Globalizazio kooperatiboari buruzko jardunaldia

2008/06/02

Pasa den ostegunean, Cooperatibismoaren Masterrean eta nazioarteko estrategiari dagokion moduluan, kooperatiben nazioarteratzeari buruzko mahai-ingurua izan zen.

Ikasleetaz gain, bertan egon ziren Sidney University-ko (Kanada) Greg Macleod irakaslea eta EHU-UPVko Angel Mari Errasti irakaslea.

"Los de FAgor y los de Brandt" dokumentala ikusi zuten, non, bi erakundeetako errealitatea ezagutzeko aukera egon zen eta bertako langileen interesak kooperatiben nazioarteratze prozesuetako adibide gisa azaltzen ditu.

Ostiralean, maiatzaren 31n Oscar Paz-ek, Orkli China-ko zuzendari kudeatzailea izan denak 2004-2008 urteetan hitzaldi bat eman zuen eta ekainaren 3an, Macleod irakasleak, "From Mondragon to America" liburuaren idazleak hitzaldi bat emango du nazioarte mailan egin diren esperientzia kooperatiboen berri emanez eta zehazki, Yucatango probintzian (Mexiko) egin direnak, Mondragon esperientzia kooperatiboan oinarriturik.

